# Gaurkoan

# OTAN: Zer eta zeinengandik defendatzeko?

Paulo Agirrebaltzategi (*)

Datorren igandean mobilizazio handiak izango omen dira Espainiako Estatua behinbetirako OTANen ez gelditzearen aldekoak. Bitartean, azken egunotan Euskal Herriaren burujabetasunaren alde, OTANen aurka izeneko manifestu baten berri eman dute egunkariek. Hirurogei bat lagunek izenpetu dute, eta irekita gelditu da, ondoren beren atxekimendua agertu nahi duten guztientzat.

Ni neu nauzue izenpetzaileen artekoa. Jakinik nago, Herriaren aurrean egiten den horrelako edozein manifestuk aurretik eta ondoren arazoaren azterketa zientifikoa, analisi politiko sakona eta herritarrentzat argibide zabalak ematea eskatzen duela. Manifestuak, arrazoiketa handiaz ala ez hain handiaz, jendaurrean jarrera jakin bat hartzeko eta erakusteko balioa du; eta agian arazoaz beste hainbat jende jaberaztekoa. Baina manifestua kaleratzeak ez deu aitzakirik ematen, arazoaren azterketa zehatza, analisi sakona eta informazio zabala arrera ez eramateko.

Ni ez naiz inola ere trebatua nazioarteko *defentsako gaietan; baina edozein herritarrek* du galdetzeko eskuidea eta pentsatzeko obligazioa. Hortik doaz oraingo lerro hauek.

Uste dudanez herritar gehienei bezala, neri oso katramilatuak gertatzen zaizkit nazioarteko defentsako eztabaiden arrazoiak eta desarrazoiak, hainbat hitz arrotz, sigla irakurgaitz eta termino misteriozkoen atzean daudenak arma taktikoak eta estrategikoak, overkill, pershing-ak, SS-20, 12, 21, 23, etab., SALT I eta SALT II, M-20 misilak, neutroibonbak, SDI eta galaxietako gerla, misil antimisilak, euromisilak, NATO edo OTAN, disuasio-sistema, buru nuklearrak, etab. etab. Nahiko buruhauste, sasiarte horretatik zelai argira irtetzeko! Aski urrutikoak gertatzen zaizkigu gehienoi defentsa-sistemen «filosofiak» eta bloke militarren armamentu ultramodernoen arteko orekak eta desorekak, nahiz eta alde batekoen eta bestekoen gure gaineko mehatxua oso hurbileko ikusi.

Horien aurretik daukat nik hainbat galdera erraz egiteko eta beste hainbat erantzun eskatzeko. Denak bi hauetara biltzen dira azken batez: Zer defendatu behar dugu? Zeinengandik defendatu behar dugu? Jakina, Euskal Herritik begiraturik ipintzen ditut galderok, eta erantzunerako bidea seinalatzen.

**Zer du defendatzekorik Euskal Herriak**

—Burujabetasun edo subiranotasun nazionala? Baina ukaturik daukagu autodeterminazio-eskubidea, eta...

—Euskal Herriaren lurraldea: horren batasuna eta osotasuna? Baina hiru zatitan banaturik dago lurraldea eta Espainiako eta Frantziako (eta AEBko) armadek harturik daukate, eta...

—Euskal Herriko lurra eta berorren «ekosistema»? Baina gure itsasoa eta zerua ez al daude arrainez eta hegaztiz agorturik, gure mendi-landak akituta, kiskalduta eta ondatuta, gure hibaiak pozoinduta, gure hiriak satsututa, gure airea kutsatuta? ...

—Gure erakunde politikoak? Baina zer da horien botere politikoa? Gehienik ere deszentralizazio administratiboaren edo autonomia partzialaren, baldintzapetuaren, kateatuaren eta marraskatuaren apurrak besterik ez bait dira horien aginteak...

—Gure sistema ekonomikoa? Zertarako defendatu 25% langile lanik gabe utzi dituen sistema? ...

—Mendebaldeko zibilizazioa? Baina ez al da zibilizazio horixe bere hizkuntza zaharrena —euskara— hil-zorira eraman duena eta Herri honi beronen kulturazko nortasuna ukatu eta suntsitu nahi diona? ...

—Euskal Herriaren hizkuntza, euskara? Ah! Hortxe daukagu inork ukatu ezin digun ondasun apartekoa, batetik eta bestetik erasopean dagoena. Baina defendatu beharreko ondasuna ezezik, defentsarako babesa eta erasorako arma dugula uste dut euskara.



Gure Herriak ez du defentsa hipotetikoren baterako sistema eta armamenturik behar, defendatzekorik ez daukalako. Euskal Herrian eta euskaldun bizi ahal izateko erresistentzi, jarkiera eta euste-borroka luzearen gain, bereondasunen berreskurapen-borroka dauka herri honek aurrean.

**Zeinengandik defendatu ezer Euskal Herriak?**

—Euskal Herriaren burujabetasuna eta autodeterminazio-eskubidea ukatzen duten erakunde estatal eta estatuartekoengandik...

—*Euskal lurraldea konkistatu, zatikatu eta* menperatu zuten erakunde militarrengandik...

—Gure zeruaren, lurraren, itsasoaren eta airearen jaun eta jabe egin direnengandik...

—Herri honen erakunde politikoak desegin eta beren erakunde politiko zentralisten menpe daukaten estatuengandik...

—Gutxi batzuren interesetan, potentzia handien menpe eta herri aberatsen zerbitzutan dagoen multinazionalen inperio ekonomikotik...

—Mendebaldeko zibilizazioa salbatzearen aitzakitan, herriak eta gizarteak diktadurapean ezarriak dituztenen eta kultura eta hizkuntza minorizatuak suntsitzen dituztenen erregimen zentralista eta inperialistengandik...

Etsai horiek ez ditu potentzialak edo gertagarriak Euskal Herri honek, faktikoak eta aspaldikoak baizik. OTAN, berriz, horiek sendotzera, indartzera eta elkartzera doan —datorren— erakundea da, Reagan-en inperio handiaren eskutik.

OTAN? OTANengandik defendatzeko Euskal Herria?

* **Euskal Kulturako langilea**

# Hemeroteca

## un trofeo llamado valls

*(Fernando Onega, en «Tiempo»)*

(...) La operación sobre la Banca está ahora en uno de sus momentos más cruciales. La presencia de Valls en un acto que no era del Gobierno, sino del Partido Socialista Obrero Español, era todo un símbolo que, si se mira con ojos críticos, significa entreguismo del poder económico o gratitud por una política que, si benefició a alguien, ese alguien es la Banca. Si se mira con ojos fríos, Valls puede ser un símbolo de normalidad: una parte de la Banca festeja la victoria de la socialdemocracia que el padre Stalin había definido como «el principal baluarte del capitalismo».

## peligrosamente católicos para el gusto de la tele

*(G. Campanal, en «El Alcázar», 7-11-85)*

De pronto, sin avisar, la tele nos largó el antisermón, la retrohomilía, el venenito fino marxicristiano disfrazado de informe sobre el movimiento *Comunión y Liberación*.

Un informe de los que el rojerío contaminador califica de *objetivo* enmascarándolo con lenguaje *católico, sereno, indulgente*, trataba de advertir a los espanoles que ojito con esos meapilas de *Comunión y Liberación*, son regresivos, son cavernícolas, son reaccionarios, son buena gente, quizá, pero no hay que fiarse de ellos: ¡le gustan a Juan Pablo II!

Está clarísimo: le gustan al Papa, no apoyan a la frailada guerrillera, hablan de Dios, practican y predican la oración, los sacramentos, respetan —y no tergiversan— el Concilio Vaticano II, tan sobado de diabluras y con torcido por sedicentes teólogos en oficio diabluno de falsos profetas.

El informe de la tele olía a salón de masaje thailandés, a presbítero liberal que no cree en Dios, dice su misa diaria y dirige alguna importante oficina curial; a cura que, cuando lo manda el calendario, se reviste con los fastuosos ornamentos de las grandes ceremonias y da a besar la reliquia del santo patrón al político ateo, socialista, compa*nero del alma, companero*.

Cuando más amables sospechas vertía displicente la tele, más claramente nos estaba anunciando la llegada a España de un movimiento verdaderamente católico, verdaderamente espiritual, verdaderamente joven y verdaderamente atractivo.

¡Aleluya! Falta hace: *orate fratres*.

Yo me hago de eso.

## hizkuntzaren aldeko alternatiba bakarrak

*(Josu, Legarreta, «Deia»n, 1984-11-8)*

Egia esan, ez dakit zenbakiak ezer adieraziko deutsien bakoitzak bere ikuspuntutik bakarrik arazoak aztertzen dabezanei. Baina, bada ezpadan be, horra hor zehaztasun batzuk; aurten Eusko Jaurlaritzatik dirulaguntza hartu daben argitaletxeak 20tik gora izan dira; dirulaguntzetara aurkeztu diren 329 liburutik 292k izan dabe argitaratzeko laguntza; idazlearen lana kontutan harturik, argitaratu diren liburuetatik % 44,19 sorkuntzazkoak izan dira, % 32,53 itzulpenak eta 23,28 berrargitaratuak. Sorkuntza lanetarako eman diren dirulaguntza 20 miloitakoa izan da eta itzulpen lanetarakoa bost miloitakoa.

Genero literario kontutan hartu ezkero, argitaratu diren liburuetatik banaketa hauxe izan da: Ipuinak 63, kontaketa laburrak 34, eleberriak 86, antzerkiak sei, bertso eta abestiak sei, saiakera eta ikerketa lanak 26, poesia 24, komikiak 24 eta bestelakoak 23.

Zehaztasun guztiok oso-osoan aztertu ezkero, ezin esan Eusko Jaurlaritza ahaleginik egiten ez dauanik, ez eta produkzio aldetik aukerarik ez dagoenik. Alternatiba barruan, bakoitzak egin behar bere aukera datuon aurrean, pentsatuz gainera datuook egiten danaren adierazgarri urri batzuk baino ez direla euskeraren aldeko produkzio bidean.

## craxi defiende el derecho de los palestinos a la lucha armada

*(Juan Arias, en «El País», 7-11-85)*

El primer ministro italiano, el socialista Bettino Craxi, defendió ayer el derecho de los palestinos a la lucha armada en su discurso de réplica en el Parlamento, poco antes del voto de confianza, que superó con el apoyo de los partidos del Gobierno. Su postura le costó casi que los republicanos provocaran de nuevo la crisis antes de que se hubiese cerrado.

Craxi dijo que está convencido de que los métodos del terrorismo «no resolverán el problema palestino y producirán sólo víctimas inocentes». Sin embargo, anadió: «Pero no discuto la legitimidad del recurso a la lucha armada, que es cosa bien distinta». (...)

El primer ministro arremetió contra los republicanos. «Cuando Giuseppe Mazzini», dijo «en su soledad, en su exilio, se atormentaba en el ideal de la unidad y estaba desesperado, no sabiendo cómo afrontar el poder, él que era un hombre tan noble, tan religioso, tan idealista, concebía y proyectaba asesinatos políticos. Esta es la verdad de la historia». Nuevos gritos y aplausos. La izquierda se pone de pie, ovacionando. Los democristianos se quedan en silencio sin salir de su asombro. A los republicanos no les parece cierto lo que acaban de oír. «Ha llamado terrorista a Mazzini, padre de la patria», se oyó gritar. Y Craxi, con voz fuerte y segura, siguió apretando: «Discutir a un pueblo el derecho de liberar a su propio país de una ocupación extranjera con el recurso a las armas significa ir contra las leyes de la historia».

La confusión es total. Ya nadie sabe quién es la mayoría gobernante y quién la oposición. En los bancos de la ultraderecha es todo un griterío. Craxi suena: «Ahora basta. Estáis discutiendo lo que no discute ni la Carta de principios de la ONU, es decir, que un movimiento nacional que defiende una causa nacional pueda recurrir a la lucha armada». Se oye otro grito: «Sí, para asesinar a los inocentes». La presidencia se las ve y se las desea para poner orden.

Lo que puede pasar tras el en*cendido e inesperado discurso de* Craxi es difícil de prever, pero ciertamente ha abierto una página nueva que conduce más bien hacia las elecciones anticipadas tras los congresos de los partidos en primavera, como apuntaban los primeros comentarios en el mismo Parlamento.




("El País")